

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

**BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATUA  
GRADUADO EN EDUCACIÓN SECUNDARIA**

**PROBA LIBREA/ PRUEBA LIBRE**

**KOMUNIKAZIO-EREMUA / ÁMBITO DE COMUNICACIÓN**

**EUSKARA ETA LITERATURA  
LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA**

**2024ko maiatza / mayo 2024**

**IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:**

---

**SINADURA/ FIRMA:**



Proba honek bi atal ditu: bata testuaren ulermenari eta hizkuntzaren ezagutzari lotua; eta bestea, idazmenari. Atal bakoitzak bost (5) puntu balio du.

Idazmenean, gai beraren inguruko bi testu proposatzen dira: luzea eta laburra. Azterketariak aukeratuko du zein idatziko duen euskaraz eta zein gaztelaniaz. Testu bakoitzak 5 puntu balio du\*. Hizkuntza bakoitzaren azterketaren emaitza kalkulatzeko, bi atalen arteko batazbestekoa egingo da:

- Testuari lotutako galderen puntuazioa (5 puntu)
- Idazmenaren puntuazioa (5 puntu)

Gaztelania eta literatura proba ere modu berean baloratuko da.

\* Idazmenean, testu bat euskaraz eta bestea, gaztelaniaz idatzi behar dira. Bi testuak euskaraz edo biak gaztelaniaz idatziz gero, baliogabetu egingo litzateke idatzi ez den hizkuntzaren idazmen atala.

Esta prueba consta de dos partes: una relacionada con la comprensión del texto y el conocimiento de la lengua; y otra, con la escritura. Cada apartado vale cinco (5) puntos.

La expresión escrita, por su parte, se puntuará también con un máximo de 5 puntos. El texto que el alumno escoja para escribir en castellano, ya sea el texto corto o el texto largo, se puntuará con 5 puntos, por lo que la puntuación total del examen de Lengua Castellana saldrá de la media de las dos puntuaciones:

- Puntuación de las cuestiones sobre el texto
- Puntuación de la expresión escrita

La prueba de euskara se valorará de la misma manera.

En el caso de que algún alumno o alumna escriba los dos textos en castellano o en euskara, solo se puntuará uno de ellos, quedando sin puntuación el apartado correspondiente a la otra lengua.



## JARRAIBIDEAK

1. Irakurri arretaz testuak eta galderak.
2. Galdera bakoitzaren alboan dator puntuazioa.
3. Saiatu galdera guztiei erantzuten.
4. Idazmenaren atalean bi testu idatziko dituzu: bata euskaraz; eta bestea, gaztelaniaz. Zeuk erabakiko duzu zein idatziko duzun euskaraz eta zein gaztelaniaz.
5. Bukatutakoan, zure erantzunak berrikusi eta akatsak zuzendu: erreparatu ortografiari eta puntuazio zeinuei. .

## INSTRUCCIONES

1. Leed, con atención, el texto y las preguntas.
2. Intentad contestar todas las preguntas.
3. Al lado de cada pregunta se expresa la puntuación correspondiente.
4. En el apartado de Expresión Escrita se deben escribir dos textos, uno en castellano y otro en euskera. Es necesario decidir cuál se escribirá en euskera y cuál en castellano.
5. Revisad de nuevo lo escrito y corregir los posibles errores. Tened cuidado con la ortografía y la presentación.



# 1ª PARTE

## LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA

2024ko maiatza/mayo 2024

**IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:**

---

**SINADURA/ FIRMA:**

# Escalada, puenting, rafting... ¿Por qué cada vez más gente se aficiona a deportes de riesgo?

La gran incógnita es por qué atrae tanto a la gente este tipo de actividades que, si no se realizan con los protocolos de seguridad adecuados, podrían llevarnos a la muerte

El Confidencial. Por [Fran Sánchez Becerril](#)

10/03/2021 - 05:00

Foto: iStock Por [Fran Sánchez Becerril](#)



Escalada, puenting, rafting, paracaidismo... Los deportes de riesgo son muchos y muy diversos, pero todos tienen algo en común: hacen sentir llenos de energía a la gente que los practica.

Cada vez más españoles realizan este tipo de disciplinas para las que realmente nuestro cuerpo no está preparado. La gran incógnita es por qué atrae tanto a la gente

este tipo de actividades que, si no se realizan con los protocolos de seguridad adecuados, podrían –incluso– llevarnos a la muerte.

“Existen diferentes factores que hacen que los deportes de riesgo sean atractivos, como la constitución física de la persona, las relaciones sociales, las características del deporte y su entorno y los beneficios psicofisiológicos”, explica a El Confidencial **Alejo García-Naveira**, psicólogo del deporte con más de 20 años de experiencia profesional.

El coordinador de la Sección de Psicología del Deporte del Colegio Oficial de Psicología de Madrid (COPM) ejemplifica: “Hay personas que buscan desconectar del día a día y liberar tensiones. Buscan sensaciones, emociones fuertes, desafíos, les motiva cambiar de entornos o el contacto con la naturaleza, compartir con los amigos, pertenecer a un grupo o actividad, tienen baja percepción de riesgo, experiencias psicológicas positivas, expresan valores humanos como la libertad, armonía, creatividad, esfuerzo y un sentido vital de sí mismo que enriquece la vida cotidiana, entre otras”.



## El riesgo de engancharse a estos deportes

Lo cierto es que podemos llegar a engancharnos a los deportes de riesgo, “pero eso dependerá de varios factores como el perfil de la persona, la actividad, la dedicación y la intensidad de la misma. Se requiere analizar cada caso”.

“La constante búsqueda del placer y satisfacción, la sensación de peligro, la liberación psíquica y física y el aumento de la autoestima pueden generar cierta adicción en ciertos perfiles de personas”, señala García-Naveira.

## El aburrimiento y el postureo

Otro de los motivos que pueden llevar a la gente a practicar deportes de riesgo podría ser una especie de aburrimiento, al haber practicado ya todo tipo de actividades. “A ciertas edades avanzadas, pasados los 40 años, se puede buscar nuevos retos para sentirse ‘vivo’, demostrarse que aún es competente, buscar nuevas emociones, salir de la rutina, probar deportes nuevos etc.”, apunta el psicólogo.

Por otro lado, las redes sociales también podrían influir en la práctica de estos deportes, ya que hay gente que realiza ciertas disciplinas por el único interés de colgarlo. “Para los curiosos o gente que busca generar contenidos variados o extremos para sus seguidores en redes sociales, puede ser una motivación el realizar ciertas actividades

## El Confidencial

[https://www.elconfidencial.com/alma-corazon-vida/2021-03-10/por-que-la-gente-se-aficiona-a-deportes-de-riesgo\\_2955311/](https://www.elconfidencial.com/alma-corazon-vida/2021-03-10/por-que-la-gente-se-aficiona-a-deportes-de-riesgo_2955311/)

(Texto adaptado)



1. ¿Dónde puede estar publicado este artículo? De dos razones que apoyen su respuesta (1 punto)

-----  
-----  
-----  
-----  
-----

2. Exprese en una frase (máximo 2 líneas) el tema central del texto (0.25 puntos)

-----  
-----  
-----

3. Diga si la siguiente frase es verdadera o falsa y diga por qué (0.25 puntos)

*Cada vez más españoles realizan deportes de riesgos porque nuestros cuerpos están preparados para ello*

-----  
-----  
-----

4. En el texto aparece un ejemplo de acrónimo. ¿Puede decirnos cual, y en que consiste un acrónimo? (0.50 punto)

-----  
-----  
-----  
-----  
-----

5. Sustituye los términos subrayados por sinónimos, teniendo en cuenta el sentido que tienen en el texto (1 punto)



	SINÓNIMO
Los deportes de riesgo son muchos y muy <b>diversos</b> ,..”	
“Buscan sensaciones, emociones fuertes, <b>desafíos</b> ,..”	
“..el aumento de la autoestima pueden <b>generar</b> cierta adicción..”	
“...llevar a la gente a <b>practicar</b> deportes de riesgo...”	

6. Enumere dos motivos por los que la gente puede practicar deportes de riesgo. (0.25 puntos)

-----  
 -----  
 -----

7. ¿En qué modo pueden influir las redes sociales, en la práctica de deportes de riesgo? (0.25 puntos)

-----  
 -----  
 -----

8. ¿Puede decirnos que es o en qué consiste un anglicismo? Ponga dos ejemplos que aparecen en el texto (0.50 punto)

-----  
 -----  
 -----  
 -----  
 -----





9. En este listado de nombres se mezclan nombres de escritoras y escritores con nombres de otras mujeres y hombres relevantes en otros campos (música, ciencia, pintura...). Identifique los nombres de las escritoras y los escritores (1 punto)

	ESCRITORAS/ESCRITORES	
	SI	NO
Ainhoa Arteta		X
Arturo Pérez Reverte	X	
Almudena Grandes		
Eduardo Mendoza		
Belen Rueda		
Juan Luis Arsuaga		
Carmen Laforet		
Rosa Montero		
Margarita Salas		
María Vallejo-Nágera		



## 2. ATALA

# EUSKARA ETA LITERATURA

2024ko maiatza / mayo 2024

**IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:**

---

**SINADURA/ FIRMA:**

# Abentura-kirolak, arriskuarekin jolasean

2004/07/01 Agirre, Jabier - Medikua eta OEEko kidea Iturria: [Elhuyar aldizkaria](#)

## OSASUNA

Gero eta gehiago dira arrisku-kirolak edo abenturakoak egitera ausartzen diren pertsonak. Izan ere, abentura eta izadiaren indarren aurkako erronka gisa hartzen diren kirol hauek arrakasta handia izan dute azken hamarkadetan. Baina, kirol horietan aritzeak arriskuak ere baditu, eta, horrexegatik, prestakuntza egokia behar-beharrezkoa da istripuren bat eduki nahi ez bada.



Arrisku-kirolek zale ugari dauzkate geure gizarteko gazteen artean, eta baita ez hain gazteen artean ere, batik bat eguneroko ohituretatik ihes egin eta zirrara handiak bizitzea gustuko dutenen artean. Askok dira izen orokor horren azpian biltzen diren jarduerak, eta oso desberdinak: zubi-saltoa, kayaka, erorketa librea, arroila-jaitsiera, eskalada, hidrospeeda, etab.

Hala ere, 'moda' honek ere badu bere alderdi negatiboa: urtero pertsona mordoxka hiltzen dira kirol-jarduera horiek egiten. Hori dela eta, segurtasuna ezinbesteko faktorea da inolako arazorik gerta ez dadin.

Printzipioz, edonork har dezake parte gisa horretako abentura-kiroletan, baina, hala ere, ez dira pertsona guztiei gomendatzeko modukoak: arazo kardiobaskularrak edo nerbioetakoak dituztenek, epilepsiak, bertigoak edo fobiak jota daudenek, hipertentsoek, ume txikiek edo arriskurik nahi ez dutenek hobe lukete horrelako kirolean ez aritu.

Bestalde, gaur egun gero eta gehiago dira horrelako 'abenturak' berme onenekin, eta monitore trebatuen laguntzarekin egiteko modua eskaintzen duten elkarteak eta enpresak.

## Istripuak prebenitzeko neurriak

Horrelako enpresek, ariketa horietan esperientzia handia duen jende prestatua edukitzeaz gain, eta kirola egiteko ekipamendu guztia (behar bezala homologatua eta egoera onean) eskaintzeaz gain, aseguru-polizak ere badituzte,

kirol horietan trebeenek ere izan baititzakete istripuak. Horrexegatik, sekula ez lirateke horrelako kirolak nor bere kasa egin behar.

Arrisku-egoeretakako laguntza-ekipoa edukitzeaz gain, aurrez pentsatu behar dugu zein osasun-zerbitzu ditugun eta nola eramango dugun ospitalera istripua izan duena.



Eskalada duela 30 bat urte hasi zen kirol-diziplinatzat hartzen.

Edonola ere, komeni da abentura-kiroletarako zaletasuna duen edonork lehen sorospeneke ezagutzak edukitzea, eta, esate baterako, hausturak, odoljarioak edo lesioak tratatzeko beharrezko teknikak zein diren jakitea. Horrez gain, istripu arinei aurre egiteko ezinbestekoa den guztia edukiko duen botikina beti aldean eraman behar da: esparatrapua, likido antiseptikoa, puntuak, etab.

Kontrol-neurri horiek guztiak hartuta ere, gerta daiteke istripuen bat edo beste, dela gizakiak huts egin duelako, ekipoa hondatu egin delako, edota eguraldi txarraren eraginez. Izan ere, Garuneko Kaltearen Espainiako Elkartearen esanean, "kirol hauek dira gazteen artean traumatismo kranioentzefalikoak % 30 baino gehiago gehitzearen arrazoi nagusia".

*Egokitua.* <https://zientzia.eus/artikuluak/abentura-kirolak-arriskuarekin-jolasean/>



**1. Arrisku-kirolak debekaturik al daude gaixotasunen bat duten pertsonentzat?** (0,25 puntu)

-----  
-----  
-----

**2. Zer egin daiteke kirol hauek duten arriskua gutxitzeko?** (0.5 puntu)

-----  
-----  
-----

**3. Zergatik esaten da artikuluan kirol hauek ez dituela bakoitzak bere kasa egin behar?** (0.5 puntu)

- A. Monitoreak direlako kirolari onenak.
- B. Kirolari onenek ere istripuak izaten dituztelako.
- C. Enpresek aseguru-polizak eskaintzen dituztelako.
- D. Enpresek ekipamendu guztia izaten dutelako.

**4. Zein prebentzio-erabaki hartu behar dira arrisku-kirola egin aurretik?** (0.75 puntu)

-----  
-----  
-----

**5. Zer jakin behar dute arrisku-kiroletako zaleek kirol hauek egiteko?** (0.5 puntu)

-----  
-----  
-----

**6. Zer eraman behar da arrisku-kirola egitean istripua izaten bada, lehen laguntza emateko?** (0.5 puntu)

-----  
-----  
-----



**7. Zer esaten du garuneko Kaltearen Espainiako Elkarteak? (0.5 puntu)**

- A. Arrisku-kirola egiten duten gazteen artean %30koa dela traumatismo kranioentzefalikoak.
- B. Arrisku-kirolaren ondorioz gertatzen diren traumatismoak %30 igo direla gazteen artean.
- C. Arrisku-kirolen ondorioz traumatismo kranioentzefalikoak gehitu egin direla gazteen artean.
- D. Arrisku-kirolen zaleen artean gehitu egin direla traumatismo kranioentzefalikoak.

**8. Artikulu honetan ematen den informazioa fidagarria dela uste duzu? Zergatik? (0.5 puntu)**

-----  
 -----  
 -----

**9: Lotu testuko hitz hauek beren sinonimoekin, adibidean bezala. (0.5 puntu)**

Testuko hitzak	Sinonimoak
Jolasean	Erietxe
Jarduera	Laguntza
Istripu	Begirale
Ospital	Olgetan
Sorospen	Ekintza
Monitore	Ezbehar



**10. Zein da artikulu honen bidez eman nahi den mezu nagusia? (0.5 puntu)**

- A. Arrisku-kirolak egiten dituen jende mordoxka hiltzen dela; beraz, ez direla egin behar.
- B. Gaur egun gero eta gehiago direla segurtasun neurriak hartzen dituzten kirolariak.
- C. Arrisku-kirolak egiteko segurtasun neurriak hartu behar direla.
- D. Arrisku-kirola egiten duten gazteek prestatu egin behar dutela traumatismo kranioentzefalikorik ez izateko.



### **3. ATALA**

## **IDAZMENA / EXPRESIÓN ESCRITA**

# **EUSKARA ETA LITERATURA LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA**

**IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:**

---

**SINADURA/ FIRMA:**





<p>Atal honetan, bi testu idatziko dituzu: bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Testuak gai berari buruzkoak dira; hala ere, desberdinak dira, bai luzeran, bai testu-generoan. Zuk aukeratuko duzu zein idatziko duzun euskaraz eta zein gaztelaniaz.</p> <p><b>KONTUZ!</b> Testuetako bat euskaraz idatzi behar duzu; eta bestea, gaztelaniaz. Biak euskaraz edo biak gaztelaniaz idazten badituzu, ez da kontuan hartuko atal hori.</p>	<p>En este apartado de la prueba debe escribir dos textos, uno en euskera y otro en castellano. Los textos tratan sobre el mismo tema, pero son de diferente extensión (uno corto y otro largo) y de diferente género textual. Debe elegir qué texto va a escribir en castellano y cuál en euskera.</p> <p>Pero, <b>CUIDADO</b>, es necesario escribir un texto en cada lengua. Si los dos están escritos en castellano o en euskera, no se tomará en cuenta este apartado en la puntuación de la prueba.</p>
---	---

<b>TESTU LABURRA (5 puntu)</b>	<b>TEXTO CORTO ( 5 puntos)</b>
<p><b>Arrisku-kirol baten ikastaroaren iragarkia idatziko duzu zure ikastetxeko iragarki-taulan jartzeko. (90-100 hitz)</b></p> <p><b>Egoera:</b> Gure ikastetxeko ikasleen talde bat osatu nahi dugu arrisku-kirol bat praktikatzeko ikastaro batean parte hartzeko. Ikastaroa egiteko irteera bat antolatu behar da eta, horretarako, iragarki baten bidez, ikastaroaren berri eman behar da interesatuek izena eman dezaten.</p> <p><b>Ataza:</b> Zure ikastetxeko iragarki-taulan ekintzei buruzko iragarkiak idazten dituzue. Oraingoan antolatu duzuen arrisku-kirolaren ikastaroari buruzko informazioa emango dituzu: non, noiz, norekin, nola joango zareten, zenbat egun, zenbat ordu, salneurria... Horrekin batera, parte hartzera animatuko dituzu.</p> <p>Testuak <b>90-100 hitz</b> eduki behar ditu.</p>	<p>Escribe un anuncio en el tablón de anuncios de tu centro sobre un curso de un deporte de riesgo. (90-100 palabras)</p> <p><b>Situación:</b> Queremos formar un grupo de alumnos de nuestro centro para participar en un curso para practicar un deporte de riesgo. Para realizar el curso hay que organizar una salida y para ello, a través de un anuncio, hay que informar del curso para que los interesados se apunten..</p> <p><b>Tarea:</b> En el tablón de anuncios de tu centro aparecen anuncios sobre diferentes actividades En esta ocasión debes informar sobre el curso de deporte de riesgo que habéis organizado: dónde, cuándo, con quién, cómo vais a ir, cuántos días, cuántas horas, el precio del mismo.</p> <p>El texto debe tener entre 90-100 palabras.</p>

<b>TESTU LUZEA (5 puntu)</b>	<b>TEXTO LARGO (5 puntos)</b>
<p><b>Ikastetxeko aldizkarirako artikulua bat idatziko duzu, arrisku-kirolei buruz duzun iritzia emanez. (180-200 hitz)</b></p> <p><b>Egoera:</b> Gero eta gazte gehiagok egiten dituzte arrisku-kirolak. Baina, askotan nahiko</p>	<p><b>Debes escribir un artículo para la revista del centro, dando tu opinión sobre los deportes de riesgo. (180-200 palabras)</b></p> <p><b>Situación:</b> Cada vez más jóvenes practican deportes de riesgo. Pero, muchas veces antes</p>



praktikatu aurretik, arrisku handiak hartzen dituzte eta ez dute prebentzio-neurririk hartzen. Ondorioz, gero eta istripu gehiago gertatzen dira.

de llegar a dominarlo, asumen grandes riesgos y no toman medidas preventivas. En consecuencia, cada vez se producen más accidentes.

**Ataza:** Zure ikastetxeko aldizkarirako artikulua batean arrisku-kirolei buruz duzun iritzia emango duzu.

Hurrengo galdera eta esaldiak lagungarriak izan daitezke zure iritzi-artikulurako: Praktikatu al duzu arrisku-kirolak? Ezagutzen al duzu arrisku-kirola praktikatzen duen inor? Arrisku-kirol zaleek aurretik kirola egiteko ikastaroak egiten al dituzte? Prebentzio-neurriak hartzen al dituzte? Zenbait ziurtasun-neurri derrigorrezkoak izan behar dute? Ziurtasun-neurriak ez badira hartzen, isunak jarri behar dira?

Batzuetan, arrisku-kirolak egiten dira alerta meteorologikoak kontuan izan gabe. Istripua gertatzen bada, sorospen-zerbitzuek beren bizitza arriskuan jarri behar dute eta sorospenerako baliabide garestiak erabiltzen dituzte: helikopteroak, itsasontziak... Zenbait kasutan, alerta-abisuek agindutakoa ez bada bete, sorospen-zerbitzuaren erabileraren kostua ordainaraztea erabakitzen da.

Testua antolatzeko kontuan hartu egitura hau:

- Sarrera: eztabaida aurkeztu. Nahi baduzu, zure tesia aurkez dezakezu.
- Garapena: bi paragrafotan idatzi iritzi horren aldeko edo kontrako argudioak.
- Ondorioa: azken paragrafoan esandakoaren ondorioak idatzi.

**Tarea:** En un artículo para la revista de tu centro, darás tu opinión sobre los deportes de riesgo.

Las siguientes preguntas y frases pueden ayudar a su artículo de opinión: ¿Ha practicado algún deporte de riesgo? ¿Conoces a alguien que practique deporte de riesgo? ¿Los aficionados al deporte de riesgo realizan cursos previos para practicar deporte? ¿Toman medidas preventivas? ¿Algunas medidas de seguridad deben ser obligatorias? Si no se toman medidas de seguridad, ¿hay que multar?

A veces se practican deportes de riesgo sin tener en cuenta las alertas meteorológicas. En caso de accidente, los servicios de socorro tienen que poner en riesgo su vida y utilizan costosos medios de socorro: helicópteros, barcos etc En algunos casos, si no se ha cumplido lo ordenado por los avisos de alerta, se decide hacer pagar el coste del uso del servicio de socorro. A la hora de organizar el artículo ten en cuenta la siguiente estructura:

- Introducción: presenta la controversia y da tu opinión
- Desarrollo: En dos párrafos escribe argumentos a favor y en contra
- Conclusión: en un último párrafo escribe las conclusiones

Eta kontuan hartu aholku hauek:/ Tened en cuenta estos consejos:



- |   |  |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"><li>● Boligrafoz idatzi</li><li>● Saiatu garbi idazten.</li><li>● Gogoratu gutxieneko hitz kopurua idatzi behar duzula.</li><li>● Zirriborro bat egin ideiak hobeto antolatzeko.</li><li>● Zirriborrea azterketarekin batera eman.</li><li>● Idazlana bukatzen duzunean, berrikusi eman baino lehen.</li><li>● Zure idazlana zuzentzeko honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:<ul style="list-style-type: none"><li>○ Ea eskatutakoa bete duzun</li><li>○ Ea testu egokia eta koherentea idatzi duzun</li><li>○ Ea testu zuzena idatzi eta lexiko eta egitura egokiak eta aberatsak erabili dituzun.</li></ul></li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>● Utilizar bolígrafo para escribir.</li><li>● Intentar hacer una letra clara.</li><li>● Recordar que es necesario llegar a la cantidad de palabras solicitadas.</li><li>● Es conveniente hacer un borrador para organizar las ideas.</li><li>● Entregar el borrador con el examen.</li><li>● Antes de entregar la prueba, revisar lo escrito.</li><li>● Para corregir el escrito se tendrán en cuenta estos criterios:<ul style="list-style-type: none"><li>○ contestar a lo solicitado.</li><li>○ escribir un texto adecuado.</li><li>○ utilizar una lengua correcta, coherente y rica.</li></ul></li></ul> |
|---|--|





**IZEN-DEITURAK/ NOMBRE Y APELLIDOS:**

**SINADURA/ FIRMA:**

**TESTU LUZEA ( 5 puntu)/ TEXTO LARGO (5 puntos)**

Iritzi testua / Texto de opinión ( 180-200 hitz/palabras)

.....  
.....  
.....  
.....

5.....  
.....  
.....  
.....  
.....

10.....  
.....  
.....  
.....  
.....

15.....  
.....  
.....  
.....  
.....

20.....  
.....  
.....  
.....  
.....

25.....

.....

.....

.....

.....

30.....

.....

.....

.....

.....

.....